

Ortzadar Euskal Folklore Elkarte

[EUS]

1974an, Iruñeko hainbat dantza taldetatik etorritako musikari eta dantzari talde batek **Ortzadar euskal dantzari eta kantari taldea** sortu zuen. Lehendabiziko urteetan, **Ortzadar**ek bere jatorrizko harremanari eusten dio San Antonioko Gazteen sailen artean. Jarduera nagusiak musika eta dantza tradizionalak ikastea dira, lehenengo emanaldi publikoak eta folklore ikuskizunak egiten hasiz, eta,aldi berean, hainbat ikastaro emanez.

Gaur egun, proiektua indartu egin da eta **Ortzadar euskal folklore elkarte** da, irabazi asmorik gabeko kultur elkarte pribatua. Bere jarduera eremua euskal kulturari dagokiona da, eta horren barruan, bereziki, Nafarroa.

Ortzadar, sortu zenean, bere funtzioak eta helburuak nabarmendu zituen. Zehazki, helburu horiek honako hauek dira: ikerketa lanak, ikasketa-jardunaldiak, ikastaroak eta/edo tailerrak antolatuz, eta dantza eta musika emanaldien bidez, folklorea eta kultura tradizionala ikertzea eta zabaltzea da.

Folkloreko elementuak ikasteko, zabaltzeko eta berreskuratzeko interes hori dantza eta musikako errepertorioa aurkezteko berrikuntza-ekimen etengabearekin osatzen da, koreografia eta eszenaratzea landuz.

[CAST]

En el año 1974 un grupo de músicos y dantzaris provenientes de diversos grupos de danza de Pamplona crean **Ortzadar euskal dantzari eta kantari taldea**. En los primeros años de vida, **Ortzadar** mantiene su relación original entre las secciones de la Juventud de San Antonio, teniendo como actividades principales el aprendizaje de músicas y danzas tradicionales, comenzando a realizar las primeras actuaciones públicas y espectáculos de folklore y a su vez, se imparten diversos cursos. Actualmente, se ha fortalecido el proyecto configurándose como **Ortzadar euskal folklore elkarte**, asociación cultural privada sin ánimo de lucro, siendo su ámbito de actuación el correspondiente al de la cultura vasca y dentro de él, especialmente, Navarra.

Lo que distinguió a **Ortzadar** en el momento de su fundación fueron sus funciones y objetivos. Concretamente dichos objetivos son el estudio, la investigación y la divulgación del folklore y la cultura tradicional mediante la realización de trabajos de investigación, organización de jornadas de estudio, cursos y/o talleres, además de la divulgación a través de las actuaciones de danza y música.

Este interés por el aprendizaje, divulgación e, incluso, recuperación de elementos del folclore, se complementan con la continua iniciativa de innovación en la presentación del repertorio de danza y música, trabajando la coreografía y la puesta en escena.

130 Gamazada



Laburpena

[EUS]

Duela 130 urte **Gamazada** izeneko gertaera historiko garrantzitsu bat eman zen Nafarroan. Gamazo ministro espainolak Nafarroako zerga-araubidea ezabatzeko zituen asmo zentralistek, lurraldearen eskubide historikoak indargabetzea eta herriaren asmo libreak ezabatzea zekarten. Ordura arte Nafarroaren subiranotasunaren azken hondarrari egindako eraso hau, funtsean, nafar nortasunaren, harrotasunaren eta idiosinkrasiaren aurkako eraso zuzena zen. Sentimendu haiek uxatu ordez, inposaketa hori pizgarria izan zen nafar nortasunaren txingarretan. Protesta herriko masibo batek zeharkatu zituen Nafarroako lurralde historikoetako hiri eta herriak, azken hamarkadetako mugimendu politiko handienetako bat sortuz.

Erriberako herri askotan egiten zen eta egiten jarraitzen den bezala, paloteadoak antolatzeke ohiturari jarraituz, Jose Jarauta **Joselicok** **Gamazadaren** gertaerak gogorarazten zituen testua idatzi zuen 1894an. Errebindikazio nabarmena eginez, bertso hauek garaiko sentimendu herrikoia azaldu zuten eta zehazkiago Nafar Aldundiaren ordezkariak foruen defentsarako Madrilerara egindako bidaia.

Joselicoren testu hura oinarritzat hartuta, Ortzadar taldeak 1978an paloteado berezi honen idazkiak berregin zituen.

Oraingo honetan ere, Ortzadarren eskutik eta gertaera haien 130. urteurrena ospatzeko, paloteado honen emanaldiaren bertso berri bat ikusiko dugu. Erriberan hain ohiko den herri-kritikaren adierazpen hau, gertaera historikoak ezagutzeko tresna paregabea da, baina baita tradizio eta kultura immaterialaren formak berrikusteko ere. Emankizun honetan, 16 dantzari, 8 musikari eta hainbat aktorek 1894an Jose Jarautak idatzitako Monteagudoko makil dantza haren bertsoak antzetzuko dituzte, erreferentzietan, hizkuntza inklusiboan eta umorean egungo testuingurura berrikusiz eta eguneratuz.

Sinopsis

[CAST]

Hace 130 años aconteció un hecho histórico de gran relevancia para Navarra llamado **la Gamazada**. Las pretensiones centralistas del ministro Gamazo para suprimir el régimen fiscal navarro suponía la práctica abolición de los derechos históricos del territorio y con ello un borrón de las aspiraciones libres del pueblo navarro.

Este ataque al resquicio de soberanía navarra mantenida hasta entonces, suponía en el fondo un ataque directo a su identidad, orgullo e idiosincrasia. Lejos de replegar aquellos sentimientos, esta imposición fue un revulsivo en las brasas de la identidad navarra. Una reacción popular masiva recorrió las calles de ciudades y pueblos de los territorios históricos navarros, generando uno de los mayores movimientos políticos en décadas.

Siguiendo la tradición de organizar paloteados como bien se hacía (y se sigue haciendo) en muchos pueblos de la ribera, José Jarauta **Joselico** escribió en 1894 una función de paloteado donde se recordaban los hechos de **la Gamazada**. Con un carácter de marcada reivindicación, estos versos relataron el sentimiento popular de la época y más concretamente el viaje de la delegación de la diputación foral a Madrid para la defensa de los fueros.

Teniendo como base aquel texto de **Joselico** el grupo Ortzadar recreó en 1978 los escritos de este paloteado singular.

En esta ocasión, de la mano de Ortzadar también y como forma de conmemorar el 130 aniversario de aquellos hechos, veremos una nueva versión de la función del paloteado. Esta expresión de crítica popular típicamente ribera es una buena herramienta para revisar los hechos históricos, pero también las formas de tradición y cultura inmaterial. En esta función, 16 dantzaris, 8 músicos y varios actores y actrices representarán versos de aquel paloteado de Monteagudo escrito por José Jarauta en 1894, con una revisión y actualización al contexto actual en referencias, lenguaje inclusivo y humor.